



MIKROPIGMENTAZIOA, ARRISKURIK GABE EDERTZEKO ARTEA

Micropigmentación, el arte de embellecer sin riesgos

Begoña Kapape

Bekain finegiak dituzu, ezpain mehegiak eta asimetrikoak? Orin bat eduki nahi zenuke goiko ezpainean, Cindi Crawford-ek bezala? Bada, orain, aurpegia-aren itxura zuzendu eta diseinatu daiteke, hobetzeko, operazio-geatik pasatu gabe. Teknika horri mikropigmentazioa edo makillaje kromatiko iraunkorra esaten

zaio. Gure aurpegian aldaketa horiek egiteko derrigorrezko betekizun bakarra profesional espezializatu eta gaituen eskuetan jartzea da.

Makillajearen diseinu eta kolorearen perfekzio eta iraunkortasunari esker, dermopigmentazioa gaur egun gero eta zale gehiago dituen aukera estetiko da.

Pertsona asko, gehienak emakumeak, mikropigmentazioaren bat egitera joan ohi dira kontsultara eta, horrela, denbora asko aurrezten dute eyelinerra trazatu, ezpainak nabarmendu eta bekainak markatu behar ez dituztelako. Gainera, efektu optiko orokorra oso ona da. Hala, makillaje erdi iraunkor hori aukera-

tzen omen dute hainbat kirolarik, urarekin etengabeko kontaktuan daudelako edo hainbeste ariketa eginda izerdi asko botatzen dutelako, baita, besterik gabe, kosmetikoak emateko trebetasunik ez duten emakumeek ere.

Pigmentu naturalak eta hipoa-lergenikoak ia mundu guztiarentzat dira egokiak, ez dira ezabatu eta ez dute kolorea galtzen, eta haien eragina behin betikoa ez den arren, gutxienez bi urte irauten dute. Alopezia lokalizatu deitzen zaien kasuetan, bekain eta betile urrituak ezkutatzeo irtenbiderik onena da.

Jamy estheticienne eta mikropigmentazio teknikako profesionala da. Haren hitzetan, “zuzentzeko eta edertzeko makillaje honek jaialdi edo ekitaldi berezi batera joateko erabili ohi denak baino xeheagoa izan behar du. Diskretua izan behar du, zuzondo sentiarazteko”. Horrez

gain, prozedura honetako adituaren arabera, gustu pixka bat eduki behar da formak eta koloreak harmonizatzeko, eta baita “margolari ezaugarri batzuk ere eduki behar dira. Niri ikaragarri gustatzen zait ikustea nola gertzen den hobetu dudan eta hazpegiak indartu dizkiodan aurpegi bat, jendeak aurpegi hori hobeto ikusi eta zergatik ez dakiela. Emaizta eder eta diskretuak gustatzen zaizkit”

Dermopigmentazioak erabilerako asko dauka, hala nola kirurgia berreraikitzailearen ostean titiburua sortu edo birdiseinatzea, edo burusoiltasuna ezkutatzeo zein ileko mikrotransplantea osatzeko ile-larrua iluntzea, hondo bat sortuz. Orbanak eta erredurak estaltzeko edo ostentzeko ere balio du.

Mikropigmentazio lan hauek egiteko hainbat makina daudela azaldu digu Jamyk. “Denak ez dira berdinak, zenbat eta berriagoa izan, gutxiago sufrutuko du bezeroak. Ez da mingarria, gogaikarria baizik”. Pigmentazio motei dagokienez, bi mota daude merkatuan, bata landare-jatorrikoa eta bestea minerala, eta estheticiennearen esanetan, “inolako alergiarik eragiten ez duen bakarra minerala da, gure organismoarekin bateragarria da, guk ere mineralak baditugulako. Nolanahi ere, komeni da belarriaren atzean proba batzuk egin eta egun batzuetan itxarotzea, badaezpada erreazioaren bat eragiten duen. Nik hala egiten dut”. **F**